

# B

BARREN

A man with short dark hair, wearing a black zip-up jacket over a white shirt, stands in a workshop. He is looking directly at the camera with a neutral expression. His right hand is resting on a large, dark metal wheel of a complex mechanical device, possibly a lathe or a similar industrial machine. The background shows various tools and parts of the workshop, including a wooden chair and other machinery.

**“Makinak maitasunez  
zaintzen ditugu”**

**Pedro Ortuondo, Erreminta-Makinaren Museoko zuzendaria**



# TEXTIL HOGAR KOLTXOI DENDA LAGUNAK

*Etorri zaitetz  
gure dendarara  
eta  
ahozabalik  
geldituko zara!!*

# LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## Sarrera zatarrak

Jakin badakitt etxebizitzarena gai eztabaidatsua dala eta arazuari aurre egiteko moduetako bat Babes Ofizialeko Etxebizitza izan leikela. Neu ez nago, iñundik iñora ere, BOEn aurka. Ulertzen ez dotena da Elgoibarko BOEak zer dala eta izan bihar daben estetikoki horren zatarrak, Bilbo moduko beste toki batzutan polittak diranian.

Hauxe da Elgoibarrera iritsi eta Goikorrotako zubi gaiñetik ikusten dana: eskuman eta goixan, Karakateko antenia. Pare-parian, ordia, zortzi pisutako bi etxetzarretan lanak bukatziar, trantsizioko urtietako baten herri erdialdian bost pisu baiño gehixo dituzten eraikiñek tokirik ez dakabela dioen legia idatzitta badago ere. Gaiñera, dagoeneko eraiki dituzten BOEko 99 etxebizitez gain, trenbide eta autopistaren artian auskalo zenbat pisutako 150/170 etxebizitza libre eraikitzeko asmua dakabe.


Hasieran, Elgoibarko sarrera nagusixa izatiagaittik, ingurune honetarako hirigintza plana bestelakua zan . Elgoibarko sarrera ederra izateko, trenbidia lurperatu eta plaza luze bat eraikitzia adostu zebeñ. Goikorrotako zubixaren

parian, bi pisutako etxebizitzak eta 230 aparkaleku pribatu eraikikitzekuak ziran. Ez zittuzten 270 etxebizitza eraiki bihar.140 izango ziran eta gainera altuenak sei pisukuak.

Etxe altu itsusixak, herriko trafikua, kontenedore zahar zatarrak eta berdegune zaindu gabiak hementxe bildu dituzte. Horren zailla al zan Madala ingurua edertzeko ahalegina merkadillo berriraiño luzatzia? Etorkizunian, Elgoibartarrok herrixan egin bihar diran aldaketak ezagutu deiguzen, proiektu bakoitzaren make-tia erakusgarri jartzia ez zan gaizki egongo. Seguru ezusteko asko ekidingo gennitula eta Elgoibar edertze bidera lagungarria izango zala.

Pundamentuz bizi.

Amaia Urzelai



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Ez dot ulertzen Babes Ofizialeko Etxebizitzak zegaittik izan bihar daben estetikoki hain zatarrak”.

	<b>Mikel Olaizola</b>	<b>b</b>
	<b>Asier Etxaniz</b>	<b>l</b>
	<b>Ainhoa Lendinez</b>	<b>o</b>
		<b>g</b>
		<b>a</b>
		<b>k</b>
<b>www.elgoiBARREN.net</b>		

Gurera ere  
iritsi dira  
blogak!

Egin klik  
eta  
ikusiko duzu



# PEDRO ORTUONDO

ERREMINTA-MAKINAREN MUSEOKO ZUZENDARIA

“Euskaditik kanpo  
ere museo hau  
erreferentea da”

Pedro Ortuondok berak zuzentzen duen museoko makina bakoitza ezagutzen du, baita itzalean mantentze-lanetan dabilen Valentinek ere. Makinak osasuntsu daude, etorri ziren moduan. Batzuk ehun urte inguru dituzte, garai bateko testigantza isilak. Aurten hamar urte beteko ditu IMHko museoak. Eta Ortuondo pozarren dago Bilbao Exhibition Centreko Erreminta-Makinak *bienalean* lehen aldiz izango delako museoaren ordezkaritza. Sarreran izango dira erakusmahai dotore batekin, bisitariak jakin dezaten sektore horrek historian izan duen garrantzia. 700 espositoreek, esate baterako, museoaren inguruko DVDa eta informazioa jasoko dute. Gainera, martxoaren 3tik 8ra bitartean errementari batek lanean jardungo du museoan, lehengo tailer batean jardungo lukeen bezala.

## Zenbat urte egon zinen museoa estreinatu ahal izateko beharrean?

IMHn jaio zen proiektua, baina hiru-lau urtetan egon nintzen proiektu honekin bakarrik. Azkenean erabaki genuen kalitatezko erreferentzia bat izatea. Eraikin berri honi antzinako tailer baten itxura eman diote.

## Non zeuden makinak museora etorri aurretik?

Makina mordoa biltegi batean zeuden 1994 eta 1998 urte bitartean. 1998ko abenduaren 18an inauguratu genuen, baina aurrez lan asko egin zen. Makinak sailkatu genituen, konpondu eta martxan jarri genuen museoa.

## Nola ospatuko duzue urteurrena?

Bilbao Exhibition Centreko (BEC) Erreminta-Makinaren *bienalean* egongo gara eta orduan hasiko gara urteurrena ospatzen. Gabonetara arte bi ekitaldi egingo ditugu. Abenduan zerbait berezia egingo dugu.

**“Maitasunez zaintzen ditugu makinak. Ondo zaintzen badira, hobeto ibiliko dira”**

## BECen egongo zareten lehen aldia da?

Bai, Bilboko Nazioarteko Erakustazokan egon ginen 2000. urtean. Baina gure lehen aldia izango da BECen. Orduan ikasi genuen espositoreak produktu berriak erakustera joaten direla eta horregatik aurten erakusmahai sarreran jarriko dugu. Zortzi metro izango ditu zabaleran eta luzeran hiru metro eta erdi. Sarrera nagusian egongo gara bisitarien zerbitzura. Kristoren informazio-taula da. Batetik argazkiak izango ditu, liburuxkak, DVDak eta liburuak, eta bestetik museoko bi makina. Argazkiek beste berotasun bat ematen dute; industriaren bilakaeraren argibideak dira.

## Elgoibar aipatuko dute zuzenean argazkiek?

Ez, gu ez gara munduan lehenengoak izan. Munduan euskaldunok zortzigarren potentzia gara. Ezin dira nahastu oraingo makinak eta lehenengoak tamaina horretako era-

kustazoka batean. Makina berriak ikustera bazoaz, ezin dituzu zaharrak erakutsi. Gure aurrekoen berri emango dugu, jendeak jakin dezan nondik datorren erreminta-makinaren historia. Gure erakusmahaiak historia zabaltzeko balio izango du. Makina horiek eramango ditugu. Ikusi zein ederrak diren...

## Noizkoak dira?

Industria jaio baino lehenagoko makinak beharrezkoak ziren norberaren indarrarekin lana egiteko. XVI-XVII. mendekoak dira. Ez bata eta ez bestea ez zituzten Euskal Herrian egin.

## Kopiak dira?

Ez, originalak dira.

## Atera izan dira museotik?

Makina horiek ez, baina beste batzuk atera dira. Herrira ere atera izan dira batzuk eta AFMn ere izan ditugu erakusgai.

## Maitasunez zaindu behar dira?

Bai. Autoak bezala. Langilea edo gidaria da lehenago? Ibil zaitezke ondo autoan asko zaindu gabe. Makinak ondo zaintzen badira, hobeto ibiliko dira. Ehun urte baino gehiago dituzte eta sasoiaren daude, etorri ziren moduan.

## Herriko jendeak behar beste ezagutzen du museoa?

Uste dut baietz. BECeko erakusmahaiak kanpoko jendearentzat da, baina matxoan egingo ditugu jardunaldi bereziak apropos herriko jendearentzat.

## Ate irekiak izango dira?

Ofizioen jardunaldia deitzen diot. Ikusi ahal izango da erremintari bat sasoiko tailer batean lan egiten. Martxoaren 3an etorriko da aste osorako: goizeko 8:00etatik 13:00etara, eta 14:30etatik 17:30etara. Gero, martxoaren 8an, zapatuan, goizeko 8:00etatik 14:00etara bitartean egongo da.

## Olio asko behar dute makinek?

Ez dute asko behar. Astean behin, behar bada.

## Makinek hitz egiten dute?

Autoek bezala, olio behar badute hotsa aterako dute.

## Urte mordoa daramatzazu erreminta-makinaren munduan. Balantze positiboa egiten duzu?

Bai, kontuan eduki ez gure erreferentziarik izan museoa irekitzeko garaian. Dokumentazio bila ibili ginen hara eta hemen: argazkiak topatu, makinak eta hori guztia, poliki-poliki egin dugu. Beti gaude berritzen.

## Argazkiei, irudiei, garrantzia handia ematen diezu.

Bai, bizitasuna emango dio museoari.

## Asko aldatuko zen museoko erakusketa denborarekin, ezta?

Bai. Begira liburuxka hau. Mokitarekin inauguratu genuen.

**“Bilbao Exhibition Centreko sarrera nagusian izango gara bisitarien zerbitzura”**

## Enpresek ere aprobetxatzen dute leku paregabe honen ikusmira?

Luntxak ere egiten dira. Mahaiak ez ipintzearren, plater batzuk jarri daitezke hemen (makinak eta pasilloa bitartean dauden zurezko barandak). Ehun laguntzeko lekua badago hemen.

## Etortzen dira teknikariak antzinako makinetatik ikastera?


Bai, etorri etortzen dira. Enpresetako komertzialek erabiltzen dute kanpoko bezero bati erakusteko. Injinierrak ere etorri ohi dira ikastera. Egungo makinek edozein forma egiteko gai dira, garai batekoak ez. Baina egun ere ohiko makinak egiten dira. Dena ez da berrikuntza eta garapena. Museorako ideia gehiago ditut. Gaurko makinak ere jarri nahi nituzke, historia guztia batzeko.

## Izan ginena eta garena...

Hori da. Enpresa munduarekin harremana izango dugu. Dena ezin izango da erakutsi, noski. Begira, hauxe da museoko makina zaharrena.

## Museoa salgai jarriko bazenu, ez legoke dirurik erosteko, edo diruak dena eros lezake?

Ezta pentsatu ere. Makina asko eredu bakarrak dira. Erreferentzia da museo hau, baita Euskaditik kanpo ere. Ikusi bestela hauspo eta makina hori. Markinatik ekarri zituen Elgoibarrera Ibarluzeatarren familiak.



## Biztanleria

### Elgoibartarrek 38 urte hartzen zituzten, batez beste, orain dela mende bat

**G**ure herriak XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran zenbat biztanle zituen aztertuko dugu. Gorosabel historialari gipuzkoarrak 1860an 3.238 biztanle zituela adierazten digu, urte hartako zentsua aipatu ondoren. Biztanleria adierazteaz gain, udalerrriaren osaketa ere azaldu zuen. Beraz, urte hartan Elgoibarko udalerrian honako zati hauek bereiztu zituen: kaskoa, harresiz kanpoko auzoak (oraindik harresiak bota gabe baitzeuden), Altzola eta Mendaroko zati bat.

- Kaskoak bost kale, bi plaza, bi udal-etxe, alondegia bat, harategi bat, bi herri-iturri eta mojen errebala hartzen zituen.

- Harresiz kanpoko auzoak zioen base-erriak jendeztatuak zeudela, eta honako hauek aipatu zituen: San Pedro, San Lorenzo, San Migel, San Roke eta Arriaga.

- Altzolari dagokionez honako datu hauek: kaleko 20 etxe; 6 baserri; 167 biztanle; bainuetxe bat eta ur bero gaziak; eta neskatoentzako eskola, mutikoak Elgoibarrera joaten ziren-eta...

- Mendarozabal: kaleko 15 etxe, 55 baserri, eta 426 biztanle.

Dugun hurrengo datua udal-artxioko eskaini digu, eta zazpi urte geroagokoa da, 1877. urtekoa, hain zuzen ere, eta 3.368 biztanle aipatzen dira.

Baina 1882tik aurrera, Mendaro auzoa bi udalerriren menpe geratu zen: Deba ibaiaren ezkerrekoa (Plaza auzoaren zati bat eta Azpilgoeta) Mutrikuko udalerrian; eta plazako beste zatia eta Deba ibaiaren eskuinaldea (Mendarozabal eta Garagartza) Elgoibarko udalerrian.

Elgoibarrek 1897an 4.296 biztanle zituen, 1900ean 4.317 biztanle eta hamar urte geroago 4.593 biztanle izatera iritsi zen. Euskal jaiak ospatu ziren urtean, 1907an, 4.506 biztanle izango ziren, gutxi gorabehera.

#### Jaiotza-tasa baxua

Jaiotza tasari dagokionez, milako 29 ingurukoa zuen gure herriak 1907an batez besteko ertaina. Gipuzkoako (30,6) tasaren azpitik ez ezik, gainerako euskal lurraldeen eta Espainiaren (33,7) azpitik ere bazezgoen.

1907an 129 haur jaiotakoen aita-amarren jatorria aztertu ondoren, zortzi haurren aita edo ama, edo biak Euskal Herriko kanpokoak dira, baina badaude beste euskal lurraldeetatik etorritakoak ere, eta arabarrak nabarmenduko nituzke, kopuruari dagokionez.

Jaio berritan eta bizitzako lehen urteetan hilkortasuna handia zen: 16 haur, %19 hain zuzen, hil ziren 1907an, lehen urtearen barruan eta bizitzako bost urteren barruan hil zirenak 20 haur izan ziren, %20. Hona hemen adin-multzoen arabera hilkortasuna: heldu zaharrak (45-64) 13, %15; eta zaharrak (65-) 23, %27.

Heriotza tasari dagokionez, milako 18,86koa zen, ertaina, horrelaxe kontsideratzen baita 15-25 urte bitarteko tasa.

Bizi-itxaropenari dagokionez, Elgoibarren 38,4 urtetan zegoen batez bestekoa, eta emakumeena zerbait altuagoa zen gizonezkoena baino. Arrazoi nagusia haurren heriotza-tasa handia zen, besteak beste, eta oro har, medikuntzaren atzerapena, beste zenbait gabeziarekin batera. Espainian, adibidez, XX. mendearen hasieran 33,85 urtekoa zen gizonezkoentzat eta 35,70koa emakumeentzat.



Pello Arrietaren "Elgoibar modernitatearen atarian" liburutik hartua.

## Biztanleria orain

# 11.000 biztanlera gerturatzen

**B**egibistakoa da ehun urtetan Elgoibarko herrian izan den aldaketa, biztanle kopurua bikoiztu egin da-eta. Orain dela ehun urte Elgoibarren 4.500 lagun erroldatuta bazueden, orain ia 11.000 dira (10.893, iaz). Gainera, biztanleak zenbatzeko kontuan hartu beharra dago Mendarozabal eta Garagartza auzoek Elgoibar izateari utzi ziotela 1983. urtean.

XX. mendean zehar Elgoibarren eta bailaran industriak hartutako garrantziak beste euskal lurraldeetatik eta Estatu espainiarreko lurraldeetatik makina bat bizilagun erakarri zituen, lan bila eta bizitzera. Horrek guztiak herriaren aldaketa ekarri zuen eta langileentzako hainbat auzo eraiki ziren, Eulogio Estarta edo Urasandi esaterako.

Baina Elgoibarko herriak XX. mendearen amaieran laga zion hazteari eta populazioak beherantz egin zuen. Hara ere, azken urteotan Debabarreneko eskualdea populazioa nabarmen galtzen ari den bitartean, Elgoibarrek gero eta biztanle gehiago dauzka. 2004an baino 369 biztanle gehiago zeuden iaz errol-



datuta. 2006an, Elgoibarrera bizitzera etorritakoak herritik kanpora joandakoak baino 29 gehiago izan ziren. Debabarrenetik kanpora doazenak, ordea, eskualdera datozenak baino zortzi gehiago dira.

Era guztietara, oraindik ere heldu eta zaharren kopurua oso handia da, 30 urtetik gorako elgoibartarrak %70 direla kontuan hartuz gero. Azken boladan

gero eta ume gehiago jaiotzen diren, oraindik ere oso ume gutxi dago herrian (hamabi urtetik beherakoak %11 dira).

Datuen arabera, gero eta ume gehiago jaiotzeko joera hasi zen orain dela urte gutxi. 2003an azken urteotan baino ume jaiotzerik izan ziren, 61 guztira. 2005etik aurrera, 90 ume baino gehiago jaiotzen dira. Iaz, esate baterako, 91 izan ziren.

## Etorkinak

**O**rain dela ehun urteko inmigrazioa ez zen gaur egunekoaren modukoa. Elgoibarrek euskal lurraldeetatik etorritako jendea hartzeaz gain, Euskal Herritik kanpoko etorkinak ere hartu zituen: Asturias, Santander, Soria, Logroño, Santander, Guadalajara, Logroño, Salamanca, Burgos eta Zamora aldetik etorri ziren hainbat. Estatuko beste lurralde batzuetatik ere etortzen jarraitu zuten gero, XX. mendean zehar.

Azken urteotako etorkinak urrunagotik datoz, mundu zabaleko beste edozein estatutatik. Nazionalitate espainiarra ez duten 542 lagun daude Elgoi-

barren erroldatuta gaur egun. Dagoeneko %4,88 dira.

Etorkin kopuru horrek gora egiten dihardu azken urteotan. 2000. urtean 14 zeuden erroldatuta, 2006an 142, eta 2007an 393.

Munduko hainbat lekutan jaiotako andre-gizonak dira. Elgoibarren talde zabalena boliviarrak da (138 lagun). Portugal aldetik etorritakoak, berriz, 93 dira. Marokoarrak 63 dira, kolonbiarrak 36, pakistandarrak 32 eta ekuadortarrak 25.

Gehienak herrialde pobretuetatik etorriak dira, baina ez denak. Estatu Batuetatik, Britainia Handitik, Italiatik, Alemaniatik edota Estatu frantziarretik etorritako jendea ere bada Elgoibarren erroldatuta.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Energiaren arazoa: Denon erantzunkizuna (III)**

Aurreko ataletan argi geratu zen bezala, energia garbiena kontsumitzen ez dena da. Batetik norbanakook hartu beharreko neurri asko daude honi buelta emateko, beraz, energia kontsumoa jaitea behar beharrezkoa da. Gobernuen partetik benetako estrategia aldaketa eman behar da. Ezin da onartu inondik inora egun da goen gehiago kontsumitzearen aldeko politika. Administrazioek AHT bezalako energia xahutzailak debekatu beharko lituzke, Nuklearren mehatxua saihesteko.

Halere, hemengo agintariek aldaketa klimatikoaren alde AHT egitea proposatzen dute, non kontsumo neurriak frantziako TGVtik hartuta dauden, eta Frantzia elektrizitatearen %80 nuklearretik sortzen dute. Gainera arrazoiak hutsa da, AHT ez baitator hegazkina ordezkatzera, honen osagarri izatera baino! Beraz, energiaren arazoaren trilogia honen ondorio bezala zera diogu: Aldaketa klimatikorik, Nuklearrik edota mendien industrializaziorik nahi ez baduzu esan ez AHTri!!!

AHTez Elgoibar ☺

**Kosovo independentea izango da laster.**

Eskoziak urte batzuk barru erabakiko du independentea izan nahi duen ala Inglaterrarekin bat egiten jarraitu nahi duen. Belgika barruan bizi diren bi nazio, Flandria eta Valonia, laster bi estatu independente izatea oso posiblea da, epe ez oso

luze batean. Hiru lurralde horiek Europar daude eta, maila handi batean, normaltasunean bizitzen ari dira prozesu horiek.

Espainiar Estatuan, aldiz, independentzia nahia jazarria izan da joan deneko urte askotan. Azkenak aipatzeagatik Francoren garaian edota transizio politikoaren hasieran, non independentziaren eskaera ereabat debekatu zen alderdien estatu-tuetan. Egun antzeko egoeran aurkitzen gra. Espainiar konstituzioa kaiola, espetxe, bihurtu da Estatuan bizi diren herrietzat (Euskal Herria, Catalunya, Galiza). Independentziaren aldeko hautu garbia egiten dutenak kartzelaratu, ilegalizatu eta torturatu egiten dira. Baina asko aurreratu dugulakoan nago: euskal herritarren gehiengo zabala aldaketaren aldekoa da; aldaketa hitzartu bat, non erabakitze eskubidea eta lurraldetasuna errespetatuak beharko liratekeen. Borrokak ekarri gaitu hona arte eta horretan jarraitu beharko dugu. EHAK eta ANVren ilegalizazioak, torturak, makrosumarioak, presoekin egiten ari direna... guzti horiei erantzuna eman behar diegu.

PSOEk jokoz kanpo nahi du ezker abertzalea, gerora PNV eta NaBairekin konstituzioaren araberako erreforma egiteko. Baina independentzia da Euskal Herriak duen irteerarik egokiena bere burua antolatu ahal izateko Letonia, Estonia, Lituania, Kroazia, Montenegro eta abar luze batentzat izan den moduan. Martxoaren 9an ere aukera izango dugu independentziari baietza emateko.

Pello Mendizabal ☺

**ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA**

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Abel  
Irizar

Penagarria da Karakatek eta beste mendi batzuek hartu duten itxura: kanposantuak dirudite. Bai, mendiak kanposantu bihurtzen ari gara eta hori ez da ez ekologikoa eta ezta sana ere.

Kristau fedea beheraka doa, baina, itxura denez, guk oraindik zerura altxatu nahi ditugu gure hildakoak. Eta, era orijinalagoan egin nahian, mendi puntetara eramaten hasi gara hilen oroimena. Hori, berez, oso ondo dago, ondo egiten bada. Baina mendi goietan pilatu diren plaka, oroigarri, eskultura eta burdina uhertuek min ematen didate. Lekuz kanpo daude han goian, kalte egiten diete mendiari, eta ez zait etikoa iruditzen. Gainera, praktika horrek ez dauka mugarik eta amaigabeko soka bihur liteke, mendiak zabortegegi bihurtzeraino.

### “Mendi goietan pilatutako plaka, eskultura eta burdina uhertuek min ematen didate”.

Eta artearen izenean, inolako proiektu planifikaturik gabe, mendiak hilerri bihurtzeak mesede txikia egiten dio arteari, eta baita naturari ere.

Uste dut badaudela original izateko beste hainbat modu duin eta ekologiko. Dagokion lekuan landareak edo arbolak sartzea, adibidez. Irudimena bultzatu behar da, besterik ez. Horixe da erronka: nola lortu helburu guztiak irudimena erabiliz eta naturari kalterik egin gabe. Bultzatu beharreko eztabaida dela iruditzen zait.

Alberto: nondik datorkigu gizakioi maite ditugun hildakoak publikoki goseste eta jainkotzeko premia hau?



Alberto  
Agirreazaldegui

Penagarria benetan, Abel. Hiriguneetan tokirik ez nonbait eta mendi puntara eraman nahi dituzte kanposantuak. Bide bazterretan istripuz hiltzen direnei ere oroigarriak jartzen hasi dira eta errepideak lore-txorta lehorrez eta oroigarri horniturik daude. Moda kontua ere izango da, baina eskuetatik ihes egin digula uste dut.

Mendiak hilerri bihurtzen ari zaizkigu, baina aurrez, mendizaletasunaren eta kristautasunaren izenean demaseko astakeriak egin dira, eta nork gelditu orain ohitura bihurtzeko arriskuan dagoen moda hori. Mendi askotan ezagutu ditugu sekulako gurutzeak: urutiago joan gabe, hor dauzkagu Morkaiko, Ermio, Pagoeta, Udalaiz eta abar, zein baino zein gurutzatuago. Lurretik zerurainoko gurutzeak dirudite. Bestalde, mendi gailur gehienetan baserri, abioi edo misil itxurako postontziak. Hor daukagu Besaideko monumentuzarra ere, Euskal Mendizaleen Federazioak eraikia. Hildako mendizaleen oroimenez egina omen da. Ez dakit zergatik jarri behar izan duten lehengoaren ondoren. Lehengoarekin nahikoa ez nonbait. Hildako mendizaleek burua jasoko balute!

### “Istripuz hiltzen direnei ere oroigarriak jartzen hasi dira”.

Mendiaren gailurra garbi egotea da naturala. Gurutzeak, haizeorrazak, antenak, zementuzko monumentuak eta oroigarriak soberran daude. Francoren garaiko gurutzeak ere zutik dirau oraindik Morkaiko puntan. Guda-irabazleek jarritakoa da euren aldekoen oroimenez. Alde batekoek zein bestekoek jarria izan, biluzid ederragoa da mendia.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Maiteminduen eguna izan zen atzo,  
eguna

## San Balentin Eguna ospatzeko ohiturarik baduzu?



### Jesus Hoyos

62 urte, garraiolaria

Bai, lehen banuen ohitura, baina bost urte daramatzat banatuta. Urte askoan ospatu izan genuen, opariak egin, dantzara joan... Horrelako ohiturak galtzen ari direla uste dut.



### Santos Mugerza

86 urte, jubilatua


Ondo konpontzen naiz ni andrearekin. 54 urtean bizi naiz berarekin. San Balentin egunean beti zeozer izaten da: laztan bat gehiago edo erregaloren bat edo beste beti izaten da.



### Aurora Rodriguez

53 urte, etxekoandrea

Lehen bai, baina orain ez. Gustatzen zitzaidan. Afaltzera joaten ginen eta detalle txikiak oparitzen genizkion elkarri. Egun polita izaten zen. Gazteek orain egun horri ez diote garrantzirik ematen.



### Elena Lariz

13 urte, ikaslea

Ospatzea gustatu bai, baina zeinekin? Nik uste dut bikotea izanez gero, ospatuko nukeela. Zeozer erregalatuko nioke, detalleren bat edo. Egun polita izango litzatekeela uste dut.

10<sup>eko</sup>  
TXIKIAN



M<sup>a</sup> EUGENIA  
GONZALEZ

Dendaria

#### 1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Herriko plaza oso atsegina eta polita da. Txukun-txukun dago. San Frantzisko kalea zapatu gauetan zatar bihurtzen da.

#### 2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Gazteentzako alternatiba gehiago falta dira. Zapatu gauetako egoeran kaltetuenak gazteak dira. Penagarria izaten da. Soberan, beharbada tabernak egongo lirateke.

#### 3. Azken aldian egindako obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Auzo garaietan bizi garenontzako egin diren obrak: eskailera mekanikoak... Herria oso polita dago.

#### 4. Eta egin den astakeriarik handiena?

Babes ofizialeko etxeak. Fatxadan bertan igartzen zaie babes ofizialekoak dira. "Etiketa" hori ez zait gustatzen.

#### 5. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Jende lasaia eta langilea gara. Herrian gertatzen diren kontuetan parte hartzen dugu.

#### 6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Gero eta gehiago, baina gauza gehiago egin daitezke. Oso kirol zalea izan naiz, eta jende gaztearen eskura jarri behar dira zerbitzu horiek.

#### 7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Bai, astero izaten ditugu erakusketak, antzezlanak, zine klubak. Joaten naiz noizbehinka.

#### 8. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ezta pentsatu ere. Oraindik zikin-zikina dago. Txikiak ginenean, Ardetxen ibai ondoan bizi zen baserritar batek kanoan buelta bat ematen ziregun uda garaian. Arrainak zeuden eta oso polita zen.

#### 9. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Ez, Bilborako autobusak falta dira. Ez dut sarritan erabiltzen, baina behar dudanean amorrua ematen dit. Euskotren oso geldoa da.

#### 10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai. Kostaldeko herriak politak dira, baina nik nahiago dut Elgoibar.



### Sigmako aparkalekutik errepiderako irteera oso arriskutsua da:

“Sigmako aparkalekutik N634 errepiderako irteera ez dago batere ondo. Argi jartzen du seinale batean ezin dela Eibarrerako norabidea hartu, baina gidari askok ez diote kasurik egiten, ez dute seinalea errespetatzen eta Eibar alderantz irteten dira, aparkalekura sartzeko zain dauden gidariei bidea oztopatuz. Jendeak seinaleak errespetatu egin behar ditu edo bestela, udaltzain bat egon beharko litzateke ingurune hori zaintzen. Egunen batean ezbeharren bat gertatuko da eta, orduan, beranduegi izango da neurriak hartzeko”.




### Zabor kontenedoreak maiztasun handiagoarekin hustu behar dira:

“Zabor kontenedoreek gainezka egiten dute askotan. Botila edukiontzia beteta aurkitu dut aste honetan eta lurrean botata zeuden botila mordo bat. Nik uste dut gehiagotan hustu behar direla zabor kontenedoreak, herriko toki askotan gertatzen baitira horrelakoak. Horre gain, jendeak ez ditu kartoi handiak txikitzen eta edukiontzian lekua egon arren, kanpoan botata lagatzen dituzte kartoi kaxak. Egia da kartoi kontenedoreen ahoa txikia dela, baina hori ez da dena lurrean botata lagatzeko aitzakia. Denon artean herria txukun eduki behar dugu

**Iñiguez de Karkizano inguruan ez dago iturririk:** “Ume asko ibiltzen dira Iñiguez de Karkizano kalean eta han inguruko parkeetan jolasten. Leku aproposa da umeekin egoteko, ez da autorik ibiltzen eta lasaitasun handia dago edozein jolasetan jarduteko. Baina iturriren bat falta

da. Korrika, futboleak edota bizikletan ibiltzen dira umeak eta ura edateko beharra daukatenean, etxera edo inguruko tabernaren batera joan behar izaten dute. Elgoibarko Udalarari eskatuko nioke gure auzoan iturriren bat jartzea.”



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12



**Patrocinio  
Hemando Izquierdo**

2008ko otsailaren 2an hil zen 77 urte zituela

## ESKERTZA

*Hil zara baina biziko zara  
zu beti gure gogoan.  
Itxaropena dugu biltzeko  
berriz zurekin zeruan.*



*Patrocinio Hemando Izquierdoren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

## Urruzuno eta Lerun Txiki-Mortzeria proiektuak kritikatu ditu Ezker Batua-Aralar koalizioak

EAJ-EA Gobernu Taldeak hartu duen jarrera ez dela zintzoa izan azaldu dute

**E**zker Batua-Berdeak eta Aralarrek Urruzuno 2-3 eta Lerun Txiki-Mortzeria gaien inguruan Gobernu Taldeak hartu duen postura kritikatu du. Asotelehenean eskaini zuten prentsaurrekoan, Unai Zulaika eta Izaskun Soralezek herritarren alde lan egiteko eskaera egin zioten Gobernu Taldeari.

### Urruzuno 2-3

Proiektu horretan Gobernu Taldeak “tranpa” egin duela adierazi zuen Unai Zulaikak, nahiz eta legea bete: “Uztailaren 26an onartu zen proiektua, lege berria indarrean jarri baino sei egun lehenago”. Ondorioz, Urruzuno 2-3 ingurunean egingo diren 196 etxebizitzetatik 72 alokairurako izango dira eta 15 urte pasatu ondoren, saldu egingo dira. “Sei egun itxaron eta lege berriaren barruan egingo balitz, etxebizitzaren %75 alokairu soziale-rako izango liriateke, hau da, 142 etxebizitza”. Ezker Batua-Berdeak eta Aralarrek enpresa eraikitzailearekin hitz egiteko eta alokairuko etxeen kopurua handitzeko eskatu dio Gobernu Taldeari.



### Lerun Txiki-Mortzeria

Arau Subsidiarioen azken aldaketa puntualarekin ez daude konforme, euren ustez, “ezkutuan” egin da aldaketa hori eta, horren ondorioz, Lerun Txiki-Mortzerikako lurretan edozein momentutan merkatalgune handi bat jarri daiteke. Ezker Batua-Berdeak eta Aralar herriko mekataritza txikiaren alde azaldu ziren.

EAJ eta EAK osatutako Gobernu Taldeak “haserrea, harridura eta inpotentzia” sortzen dutela gaineratu zuen, “nahi dutena egiten dutelako”. Azkenik, herriko mekataritza normaltasunera itzultzeko eguenetako merkadilloa erdigunera ekartzeko eskaera egin zuten: “Ekarri behingoz merkadilloa zentrora eta jarri dominak zeuen buruei”.

## Leire Agirrebeña eta Nere Aranberri “Mihiluze” saioan izan dira



Leire Agirrebeña eta Nere Aranberri elgoibartarrak ETB1eko *Mihiluze* saioan ikusi ditugu aste honetan. Zortzi programa egin zituen Zornotzako bikoteari irabaztea lortu zuten lehengo saioan. Handik aurrera, gasteztarrak, donostiarrek, markinarrek, ermuarrek eta nafarrek ere izan dituzte arerio. Dударik gabe, Iñaki Laskuarian, Iñaki Bengoetxea eta Lore Bereziartuarekin Txuri-Beltz tabernan egindako entrenamenduak oso ondo etorri zaizkie!

Aste honetako programak ikus-teko aukerarik izan ez baduzue, datorren astean ere izango duzu.

## Pertsonaia **Joseba Zinkunegi**



Baltasar Garzon epailearen aginduz ezker abertzaleko hamalau kide atxilotu zituzten astelehen goizean eta horietako bat Elgoibarren izan zen. Joseba Zinkunegi eibartarra Elgoibarko bere etxean atxilotu zuten. Batasunaren Mahai Nazionala berregiteko ahaleginean aritzea, eta, ondorioz, "erakunde terroristako" kide edo laguntzaile izatea leporatzen dio epaileak.

## Zenbakia **200.000**

Elgoibarko Udalak 200.000 euro bideratu ditu 2008ko Udal aurrekontuetatik Herri Eskola handitzeko lanetarako. Herri Eskolako eraikina txiki geratu dela-eta, bi irtenbideren artean aukera egin beharko du Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak, Herri Eskolak egun duen leku falta arazoa konpontzeko: orain ikastetxea dagoen eraikina eraberritu eta handitu, ala eraikin berria egin (gaur egun dagoenari eutsiz) inguruko lurretan.

## Irudia **Greba orokorra**

Euskal Herriaren eskubideen alde, greba orokorra egin zen atzo, Ezker Abertzaleak deituta. Baltasar Garzon epaileak EAE-ANV eta EHAK alderdien ekintza guztiak legez kanpo laga ditu eta datozen hiru urteetan ezin izango dute bi alderdi horiek inolako ekintzarik antolatu. Ondorioz, martxoaren 9ko hauteskunde orokorretara ezin izango dira aurkeztu. Ilegalizazioak eragindako "salbuespen egoera" salatzeke, greba deialdia egin zen atzorako, eguena. Merkatu Plazako horman itsatsita aurkitu genuen kartel hau eguaztenean. "Erosketak aurrez egin". Greba egin arren, ondo jan behar da.



## **Baranda berriak**

Udaleko langileek Urasandi auzoan hasi dituzte herri barruko barandak berritzeko lanak. Datozen hilabeteotan 3,5 baranda kilometro baranda berri jarriko dituzte herrian. Guztira, 294.000 euro bideratu dituzte Udal aurrekontuetatik baranda berriak jartzeko.



## **Herritarrek ondo erantzun diote odol emaielen deia**

Odol Emaielen Elkartek eginitako deia ezin hobeto erantzun diote elgoibartarrek: 59 odol poto batu zituzten joan zen barixakuan egin zen odol ateraldian, aurreko aldi baino 21 odol poto gehiago, hain zuzen ere. Zifra horiek oso gustura daude Elgoibarko Odol Emaielen Elkarteak. "Ikusi da komunikabideetan egin dugun deia erantzun ezin hobea eman diotela elgoibartarrek. Ematen du jendea mentalizatu dugula", azaldu du Jesus Castañares Odol Emaielen Elkarteak delegatuak.

## **Gurasoen Formaziorako Jardunaldiak**

Herri Eskolako Gurasoen Elkar-teak eta Elgoibarko Institutuak antolatuta, Gurasoen Formaziorako IX. Jardunaldiak hasi ziren eguaztenean. Arratsaldeko 18:30ean izan zen lehenengo saioa Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta datorren otsailaren 27an izango da bigarren saioa. Aurtengo jardunaldietan "adimen emozionala" landuko da.

# IBARE BARBERO

12 URTE



**Nor zara?**

Ni? Lotsagabea, pixka bat.

**Ziur?**

Beno, momentuaren arabera. Nire amarekin haserretzen naizenean lotsagabea naiz.

**Ez zara isillik geratzen, orduan?**

Ez, baina ez beti.

**Ameslaria zara?**

Bai. Amets egiten dut, noizean behin.

**Zeren inguruan?**

Lotan nagoela gehiago egiten dut. Batzuetan gogoratu eta segituan ahazten ditut.

**Mutilen aurrean lotsa pasatzen duzu?**

Ez.

**Zer izan nahi zenuke nagusitan?**

Ile-apantzailea. Ilea ukitzea gustatzen zait, ile-apaindegian gustura ibiltzen naiz. Ez nuke ilea kolorez aldatuko.

**Telebistan sekula agertu zara?**

Ez, ez litzaidake nire burua telebistan ikustea gustatuko.

**Nola mozorrotu zinen?**

"Txatxa" edo etxeakoandre mozorrotu nintzen. Barregarria izan zen, baita beste lagun batzuen mozorroa ere: Paris Hilton kartzelako erropekin. Peluka zermaten eta ez omen ziren hain eroso ibili.

**Zein da zure musika talde faborittoa?**

Denetatik entzuten dut, opera izan ezik. Musika zalea naiz.

**Munduko guapoena nor da?**

Ez dakit. Noizean behin eskubaloi partidak ikustera joaten gara eta batzuk mutil katxarroak dira.

**Elgoibarren mutil guapoak badaude?**

Egunero ikusten ditugu hemengo mutilak...

## Ekintza



### "Elgoibar bi erroberetan"

Herri eskolak antolatzen duen *Elgoibar bi erroberetan* ekimena apirilaren 6an egingo da. Iaz erantzun ona izan zuen, eta horregatik erabaki dute urtero egiten hastea. Alde zaharra bizikleta gainean zeharkatu eta gero Sallobente-Ermuaranera joateko aukera izango dute zaletuek.



## ZEIN DA ZURE MARRAZKI BIZI DUN GUSTUKOENA?

### Gaizka Loiola

6 urte

Doraemon. Nobita atsegin dut, katu kosmikoarekin bihurrikeriak egiten dituelako.



### Imanol Arantzamendi

6 urte

Doraemon. Magia egiten du eta asko gustatzen zaizkit bere botereak.



### Miriam Ferreiro

6 urte

Hirukiak. Nire ahizpak Elena izena du eta niri ere berdea asko gustatzen zait.



### Jon Ortega

6 urte

Shin Chan. Zorakeria asko egiten ditu eta oso gauza barregarriak pasatzen zaizkio.



### Jon Astigarraga

6 urte

Doraemon. Nire ustez katu kosmiko neska da. Horregatik darama gona.



### Ihintza Beristain

6 urte

Tximinoa. Oso xelebrea da eta oso ondo pasatzen dut bere xelebreek ikusten.



### Ganoraz gosaldu

Gutxik gosaltzen dute behar den bezala. Hori dela eta, Okindegien Euskal Federazioak eta Bihotz Bizi elkarteak gosari osasungarrien berri eman zieten ikastolan 10 eta 12 urte bitarteko 42 ikasleri. Ondo gosaltzea ohitura kontua da. Gainera hamar minutuarekin nahikoa da goizero bihotzarentzako gosari osasungarri eta egokia egiteko.

Komenigarria da egunean hiru fruta-ale gutxienez jatea, gomendatutako bitamina, mineral eta zuntz-kantitateak lortzeko. Esnea, kakaoa, ezti, indioilarra, ogia eta olio ere izan behar ditu umeen dietak. Gaixotasun kardiobaskularra gure gizartean heriotza sortzen duen lehenengo kausa da eta horregatik ezinbestekoa da prebentzioa. Bihotz Bizi elkarteak ilusio handiz jarri du martxan gosarien kanpaina, EAEko haurren elikadura ohiturak hobetzeko helburuarekin.



## Gure berbak

### Aditza (5): NOR-NORI le-hena (plurala)

Fonologian aittatu gendun, baiña berriz ere ekarri nahi nuke hona ahoskerako arau bat. Ezezko formetan, hasieran J- dauken aditz hauek (NOR-NORI erakuak) aldatu egitten debe ahoskeria (ez + j- ➔ etx-):

*Ez jako etorri bisitatzera ➔ etxako etorri*

*Ez jata gustatzen gaztaia ➔ etxata gustatzen*

Arau hau, gure aittiitta-amamen eta gurasuen kasuan horixe da, arau bat, beti eta salbuespenik gabe aplikatzen zana. Gaztien artian, berriz, indargalduz dixe, eta ezin leikixo arau ere esan: arrua da 40 urtetik beherako elgoibartarrak holako ahoskeria erabiltzia, kalian behintzat ([ez jako] ahoskatzen debe).

Gatozen azkenik objektu plurala deben lehenaldiko formak zein diran esatera:

- Neutruak: *Bost txanpon jausi jatazen lurrera, jausi jakozen, jausi jakuzen, jausi jatzuzen, jausi jatzuezen, jausi jakuezen.*

- Hikakuak (giz./emak.): Bost txanpon *jausi jatazen/jatanazan* lurrera, hiri *jausi jazen/janazen*, hari *jausi jakuazan/jakonazan*, guri *jausi jakuazen/jakunazen*, hareri *jausi jakuezen/jakonezen.*

Dakigun bezela, pluralaren marka nagusixa Elgoibarko aditzian amaierako -Z da, Elgoibar eta Mendarotik hasi eta Bizkaiko beste muturreraño (*jakoz, ditudaz...*).

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

1965

Mertxe Ondartzak laga digu aste honetako erretratu zaharra. 1965. urteko San Bartolome jaietan aterata dago, Txiki egunean, hain zuzen ere. Argazkia errepide nazionalean aterata dago, baina ikusten den bezala ez dauka gaur egunekoarekin zerikusirik. Orduan askoz auto gutxiago zegoen, eta lasai asko biltzen ziren koadrilak errepideko petrilean. Neska-mutil koadrila honetan umorea zen nagusi eta primeran pasatzen zituzten herriko jaiak. Zapia lepoan eta ausartenak kapera buruan jantzita ikusi ditzakegu. Gogora dezagun zeintzuk diren gazte hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Antonio Urbietta "Aldapa", Mertxe Ondartza, Feli Fernandez, Maria Jesus Arriola, ezezaguna, Txelo Martinez eta Guillermo Colino.

Behean: Jose Antonio Lasuen, Viñaras, Jose Antonio Moreno, Juaristi eta "Otxua".



## ESKERTZA



2008ko otsailaren 7an hil zen *Ignacio Barrenetxea Zubiaurreren* sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda*

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...

Medikuntza naturala, Bach loreak, masajea, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25 - Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### *Sanatana Dharma Yoga Elkartea*

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

*Mendaro*

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## OPTIKAK

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10 - Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

## FISIOTERAPIA

### *Ainhoa Fisioterapia*

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behea

### *Olatz Fisioterapia*

(Minarentzako tratamendua, jarrera berreziketa, prebentzioa, erlajazioa, masajea, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

## ORTOPEDIAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00


## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25 -Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30



# ANDER OÑEDERRA

40-15 Tenis Elkarteko Presidentea

**Ander Oñederraren ustez, gero eta tenis afizio handiagoa dago herrian. Horren seinale da 40-15 tenis elkartea. “Ekainean ikastaroa antolatu eta hurrengo pausoa txapelketa antolatzea zela pentsatu genuen. Gainera, jendeak txapelketan jokatzeko gogoia erakutsi zigun”, adierazi du 40-15 tenis elkarteko presidentea. Finalera iritsi eta Abel Fernandez mendean hartu zuen hiru setetan. Oso balantze positiboa egiten du.**

**“Herrian ganorazko pista izatea espero dugu eta oraingoa estaltzea pauso galanta litzateke”**

**Kexarik (argiztapena, lekua...) baduzue?**

Ez. Hala ere lastima da herrian tenis pista bakarra egotea edo dagoena estalita ez egotea. Eguraldiak txapelketa edo ikastaro bat asko baldintzatzen du.

**Elgoibarrek izango du ganorazko tenis pistarik (IMHkoaz gain)?**

Hori espero dugu. Oraingo pista estaltzea pauso galanta izango litzateke.

**Urtean zehar zerbaite gehiago antolatzeko asmorik baduzue?**

Bai. Heldu eta gazteentzako ikastaro gehiago antolatzeko ideia daukagu, baita binakako txapelketa edo tenis eguna egiteko ere.

**Zuen elkartearen helburuak zeintzuk dira?**

Helburu nagusia Elgoibarren tenisa sustatzea da. Horretarako, baliabideak ipintzen jarraitzeko asmoa daukagu: argi artifiziala, ikastaroak, txapelketak... Afizioa badago, beraz, ekintzak antolatuz gero jendea animatzen da.

**Finala hiru setetara izan zen, galtzen hasi zinen. Gogorra izan zen?**

Bai, ez nintzen batere ondo hasi. Poliki-poliki nire jokoa egiten hasi nintzen eta partiduari buelta ematea lortu nuen. Partidu bati buelta ematea beti da gogorra.



**Zein da zure punturik ahulena eta bizkorrena zure jokoan?**

Puntu bizkorrena eskuin golpea eta ahulena, aldiz, sareko jokoa, boleak.

**Elkarteko presidentea zara. Partaideek irabazten laga dizute?**

Ez ez, inondik inora! Izerdi asko bota behar izan dut txapelketa irabazteko.

**Bidaia-eta antolatuko dituzue tenis txapelketak ikustera joateko?**

Ez da ideia txarra baina oraingoz ez daukagu horrelako ekintzarik aurreikusita.

**Nora joango zinateke?**

Wimbledonera. Txapelketa erakargarriena iruditzen zait, xarma eta tradizio handiena duena.

**Jarraitzaile zarenez, nola ikusten duzu tenisaren mundua (apus-tuak, dopinak, Federerren nagusitasuna...)?**

Federer denen gaintik dago. Askok diote dagoeneko historiako tenis jokalaria onena dela. Ni ados nago baieztapen horrekin. Dopina kirol guztien arazo bihurtzen ari da, eta tenisa ez da kanpo gertzen. Neurriak jartzea ez da batere erraza, dopina beti pausu bat aurrerago doalako.

# Aitor Garitagoitiak irabazi du Elgoibarko ehiza xehe txapelketa

Hamazortzi ehiztarik jardun zuten elkarren aurka Araban

La Union Arrantza eta Ehizaren elkartek pasa den astebukaeran antolatatu zuten ehiza xehe txapelketa 18 ehiztarik hartu zuten parte. Arabako Santa Cruz del Fierroko ehiza-barrutian lehia bizia nagusitu zen. Senior mailan Aitor Garitagoitiak hiru faisai eta bi eper ehizatu zituen hamabi orduren bueltan. Iraitz Txurrukak, berriz, faisai bat eta eper bi harrapatu zituen. Hirugarren, Ignacio Gonzalez geratu zen, bi faisai eta eper bat jaso ondoren.

Lehen hiru sailkatuek eskualdeko azken txanpan parte hartuko dute irailean. Jonatahan Galindo, junior mailako irabazlea ere, bertan izango da. 12 ordu eta 55 minututan, eper bat ehizatu zuen. Aipatutakoez gain, Oscar Miguel, Igor Lezartua, Pedro Martinez, David Conde, Luis Bellota, Arkaitz Egaña. Iban Iriondo, Asier Arriola, Jonathan Galindo, Adur



Juaristi, Jose Mari Juaristi, losu Iparragirre, Joseba Idiaquez eta Angel Maria Azpiazu lehiatu ziren.

Horrez gain, Madrilen ehiztarien eskubideak aldarrikatzeko martxoaren 1ean egingo den manifestaziora joateko deialdia egin dute elkarteko kideek.



## Morkaikorekin, menditik sagardotegira

Otsailaren 23an, zapatua, Aritxulegi eta Irun arteko ibilbide polita egin ondoren, sagardotegi batera joango dira bazkaltzera Morkaikoko mendizaleak. Bazkalostean, Astigarraga edo Hernanin buelta bat eman eta iluntzean Elgoibarrera itzuliiko dira. Printzipioz, autobus bakarra jartzeko asmoa du mendizale taldeak. Morkaikoren egoitzan eman daiteke izena.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **0** – Zalla **1**  
 Martutene **3** – Elgoibar **4** (erreg.)  
 Elgoibar **5** – S.T. Lizeoa **1** (jubenilak)  
 Koskas **0** – Elgoibar **3** (kadete)  
 Touring **1** – Elgoibar **1** (inf)  
 Ostadar **0** – Elgoibar **5** (infantil txiki)  
 Elgoibar **3** – Aretxabaleta **4** (alebinak)  
 Elgoibar **3** – Añorga **0** (neskak)

### ARETO FUTBOLA

Kenci **4** – Inter UPV **0** (euskal liga)

### ESKUBALOIA

Trapagaran **24** – Pneumax **23** (jubenil mut)  
 Trapagaran **29** – Tecnomeca **18** (kad. mut.)  
 IMH Elgoibar **23** – Urdaibai **19** (kadete neskek)  
 Cometel **23** – Bera Bera **27** (jub. neskek.)  
 Udarregi **17** – Aterpe **25** (infantil neskek)  
 Egja **12** – Caldereria Lili. **6** (infantil neskek)  
 Ereintza **25** – H. Txarriduna **33** (infantil mutilak)  
 Zarautz **19** – Elgoibar **22** (infantil mutilak)  
 C. Astigarraga **20** – Aloña **7** (infantil neskek)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, **16**  
 12:30 Elgoibar – Aloñamendi

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, **16**  
 16:00 Caldereria Lili – Pulpo A (infantil neskek)  
 17:30 IMH Elgoibar – Usurbil (Kadete neskek)  
 Domakia, **17**  
 11:00 Aterpe – Zarautz B (infantil neskek)  
 12:30 Tecnifuelle – Urdaibai (senior neskek)



Zelai Talasoterapia  
kontzeptu berri bat.

Talasoterapia  
**Zelai**  
 Zelai talasoterapia  
 Larrea, 18 - Izuungo hondartza  
 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 86 51 00  
 www.talasozeelai.com

# MARCIAL IRANZO

Margolaria



**Orain dela hamalau urte jubilatuta eta margotzeari ekin zion. Marcial Iranzok ez zuen ordura arte pintzelik eskuetan hartu, baina olio-pinturekin trebea dela erakutsi du otsailaren 24ra arte Kultur Etxean duen erakusketan.**

## “Sinestezina iruditzen zait koadro horiek nik margotu ditudala pentsatzea”

### **Zer moduz hasi da erakusketa?**

Bisita asko izan dira. Ni horrelako gauzak egitekoa ez naiz. Dena dela, oso pozik nago jendeari nire lana gustatu zaiolako.

### **Orduan jendeari egiten duzuna erakutsi egin nahi izan diozu.**

Hori da! Jakin dezatela zertan nabilen! Karta-jokoan nirekin diharduten lagunek ere ez zekiten margotzen nuenik. Eta orain enteratu direnean zera esan didate: “Hori guztia isilik gorde duzu barren!”.

### **Zergatik isilik gordetze hori?**

Nik zer dakit... Nire gauzak dira eta ni ez naiz gauza horiek erakusten ibiltzen diren horietakoa. Batzuk bazekiten, nirekin batera ikasi zutenek eta. Azkenerako hainbeste margo neuzkanez, jendeari erakustea pentsatu dut.

### **Margotzeak zer ematen dizu?**

Pozez betetzen nau. Horiek guztiak nik margotu ditudala pentsatzea sinestezina iruditzen zait. Egia da. Umetatik hasi denak jakinduria izaten du, baina hasi nintzen adinarekin hasita ez da gauza bera.

### **Jubilatuta arte ezer ez zenuen margotu?**

Ez. Guk denda txiki bat genuen eta jubilatuta egin nintzen. Niri txikiteoa ez zait gustatzen. Biltegian sartu eta han ibiltzen nintzen, en-

dredatzen. Alabetako bat aspertu egiten nintzela konturatu zen eta pintura klaseetara apuntatzeko esan zidan. Hasieran nik nuen nahi. Egun batean erabakia hartu eta hasi egin nintzen.

### **Eta gustatu egin zitzaizun.**

Oso ondo hartu nuen eta 64 urte neuzkan. Orain niretzat droga bezalakoa da.

### **Batez ere olio-pinturekin diharduzu, ezta?**

Esmalteekin ere hasi nintzen, baina labea behar duzu horretarako. Olio-pinturekin ondo moldatzen naiz.

### **Zer teknika darabilzu?**

Bat ere ez. Nire erara dihardut. Neurriak nire erara hartzen ditut. Beste irudi batzuk hartu eta margotzen ditut.

### **Zenbat koadro jarri dituzu erakusketan?**

Berrogeita hamar. Gehiago ez ditut jarri, lekurik ez zegoelako.

### **Pinturaz gain, beste zaletasunik baduzu?**

Minutuak kontatuta dauzkat. Orduan eta karta-jokoan ere ibiltzen naiz. Ni behintzat ez naiz aspertzen.

### **Zer esango zenieke beste jubilatuei?**

Zeozertan jardun dezatela. Gauza asko egin daitezke.

# Jabi Leonen erretratuak irabazi du [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) guneak antolatutako inauterietako argazki lehiaketa

Partehartzaileen argazki guztiak web gunean ikusi daitezke

Jabi Leonek irabazi du elgoiBARREN.net atariak antolatutako inauterietako argazki lehiaketa. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria eskuratu du Leonek. Bigarren argazki saritua, berriz, Brigida Iriondok atera du eta Zumaiako Zelai Talaso hotelean bi lagunentzako zirkuitoan parte hartzeko aukera izango du.

Lehiaketan parte hartu duten erretratu guztien artean zozketa egin dute, gainera, eta Roberto Garciami tokatu zaio Atsedean kiromasaje zentruan bi orduko tratamendua.

## Lehen aldia

Lehen aldiz antolatu du [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atariak inauterietako argazki lehiaketa. Guztira hamar lagunek bidali dituzte aratusteetan ateratako argazkiak lehiaketara eta era guztietako erretratuak bidali dituzte.

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak ikusteko aukera egon badago: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atariak eskura jarri ditu nahi duen edonorentzat.



Roberto Garcia, Brigida Iriondo eta Jabi Leon.



Jabi Leonek ateratako argazkiak lehen saria eskuratu du.

## ESKERTZA



**Ramona Sololuce Paguegui**

2008ko otsailaren 7an hil zen 75 urte zituela

*Neketsua izan da  
umeak haztea,  
maitagarria zaren  
ama eta emaztea!*

*Uste bako agurra  
bai gauza tristea!  
Horrek berdintzen ditu  
heldu eta gaztea.*

*Orain itxaropenak  
egingo al du bestea:  
zorian ederrean  
elkar ikustea.*

*Ramona Sololuce Pagegiren sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## LANA

### ESKAERA

- Neska, garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko, orduka edo egun osorako. ☎ **638 420 860**
- Neska prest, pertsona helduak edo garbiketa lanerako. ☎ **616 230 814**
- Igeltsero edo margolari lanak egiteko mutila eskaintzen da. ☎ **664 606 102 / 605 207 081**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 530 407**
- Mutil makinista lanerako prest. Gida baimena badu. ☎ **616 207 343**
- Neska pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **699 576 107**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest. ☎ **610 913 346**
- Neska, garbiketa edo sukaldian laguntzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **686 127 137**
- Neska, garbiketarako edo ostatuan lan egiteko prest. ☎ **676 853 028**
- Neska, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **943 530407**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako. ☎ **690 296 857**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **648 603 029**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **699 813 826**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzuetan zaintzeko. ☎ **943 742201** (13:00-17:00 eta 20:30etik aurrera).
- Soldadura titulua duen peoia, lanerako prest. ☎ **661 225 149**
- Mutila, zerbitzari lan egiteko prest. Urteetako eskarmentua. ☎ **617 061 140**
- Emakumea, dendari laguntzaile edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 53 02 43 / 648 505 256**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldian laguntzaile aritzko prest. ☎ **638 338 816**

- Emakumea, arratsalde 16:00ak eta 19:00ak bitartean helduak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest. ☎ **639 240 038**

### ESKAITZA

- Esperientzia duen zerbitzari edo sukaldaria behar du. ☎ **696 912 902**
- Zerbitzariak behar dira lan egun eta astebukaeratarako. ☎ **626 967 857**
- Zerbitzari bat behar da astebukaeratarako. Esperientzia. ☎ **943 74 82 48**
- Enpresa batek peoia behar du. Curriculumak bidali 92 posta-kutxara. ☎ **606 034 057 / 620 578 462**

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

- Partikularra, erdigunean, 72 m<sup>2</sup>., prezioa jaitzita. ☎ **660 884 060**
- Etxea salgai San Roke auzoan, hiru logela, kalefakzioa, dena kanpoaldera begira. Komunak berrituak. ☎ **696 301 694**
- Etxebizitza salgai Mendaron 91 m<sup>2</sup>, hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela handiak eta kaldera balkoian. Garaje eta trastoarekin. 2004an jasotako etxea da. ☎ **652 757 240**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna, jakitokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **615 769 650**
- Amañan, Eibarren, pisua salgai. Bi logela, egongela, sukaldia, bainua eta bi balkoi handi. Gasa eta igogailua. ☎ **618 135 429**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berri-tua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. ☎ **628 115 677**
- 120 m<sup>2</sup> dituen pisua salgai Errosario kalean, PVC leihoak, berogailua, komun berri-tua, hiru logela, eta bi egongela. Ganbara, aukeran. ☎ **943 741769**
- Pisua salgai Santa Ana 38n. Hiru logela, aldagela, komuna, sukaldia eta egongela. Altzariekin. Guztiz erre-formatua. ☎ **669 006 421**

## ALOKAIRUA

- Etxebizitza berri xamarra alokairuan, erdigunean, bi logela, igogailu eta garajearekin. ☎ **943 20 30 83**
- 95 m<sup>2</sup> lokala alokatzen da. Bi sarrera ditu, bata San Frantzisko kalean eta bestea Urruzuno kalean. ☎ **943 740 009**

## GARAJEAK

- Marradun garajea estalia salgai, ikastola ondoan. 7.500 euro. ☎ **943 743578 639 502127**

## MOTORRA

- BMW 330i bat salgai. Aldaketa sekuentziala. ☎ **656 707 087**
- Ford Focus Guia 1.8 TDDI Berlina salgai. 2001. urtekoa. ☎ **630 151 231**
- Seat Ibiza 1,9 SDI. Bi ate, diesela, 18.000 kilometroekin, egoera ezin hobean. ☎ **699 017 973**

## BESTELAKOAK

- Ordenagailuko mahai mugikorra salgai. Monitorrea zeharka. Erretiluak atera daitezke. ☎ **646 502 866**
- Ettxeko altzariak, elektragailuak eta oherako izarak, mantak, koltzak, edredoiak eta kortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Zero Sette trikixia erosiko nuke. ☎ **655 742 836**
- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. ☎ **943 743 923 / 629 415 384**

## ABISUAK

- Erdigunean brillante txiki bat duen urre zurizko edo zilarrezko belarritako bat aurkitu da ikastola parean. Galdu duenak dei dezala telefono honetara. ☎ **680 724 060**
- Txori bat aurkitu da bi uztai hanketan dituela, berde eta hori kolorekoa. ☎ **696 608 485**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



• Zorionak etxeko gizon-txoari, iritsi da zure 3. urtebetzea. Muxuak, bereziki Markelen partez.



• Zorionak, **Nagore**, gaur, bost urte egiten dituzulako. Familiako eta bereziki ahizpa Mirenen partez.



• Zorionak, **Jabier**, gaur, bederatzirte egiten dituzulako. Guraso eta Martinen partez.



• Zorionak, maitti, zure laugarren urtebetetzean. Ama, aita eta Aioraren partez.



• Zorionak familia guztia-  
ren partez.



• Zorionak, **Asier**, gaur 8 urte egiten dituzulako. Familia guztia-  
ren ete bereziki Mariaren partez.



• Zorionak, **Ianire**, otsailaren 12an 8 urte egin zenituelako. Etxeko eta bereziki Ikerren partez.



• Zorionak, **Maialen**, gaur 2 urte egiten dituzulako. Muxu bat Asierren eta familia guztia-  
ren partez.



• Zorionak, **Manex**, hilaren 14an bi urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia-  
koen partez.



• Zorionak, **Maddi**. Igan-  
dean bost urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki Malenen partez.



• Zorionak, **Sara Basurto**,  
bihar sei urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki Asierren partez.



• Zorionak, **Ifigo**, astear-  
tean sei urte egingo dituzulako. Muxu handi bat Julenen partetik.



• Zorionak, **Ibon**, igande-  
an zure lehen urtea egingo duzulako. Muxu handi bat Nora eta Koldoren partez.



• Zorionak, **Laura**. Muxu asko Tamara eta Aidaren partez.



• Zorionak, **June**, etxeko albaitaritxo polita, lau urte egingo dituzulako. Muxu bat familia-  
ren partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bana etxekoan partez.



• Zorionak **bikote**, Jose Antonio Astigaraga eta Maria Astigaraga, zuen urrezko ezteietara ailegatu zarete. Muxu asko familia guztien partez.



• Zorionak, **aitxibxa eta amama**, zuen urrezko ezteietan. Muxu bana familia-  
koen partez.

## Bilbao Express Bidaiak

Bilbao Express Bidaiak agentzian lan egiteko pertsona bat behar da. Sektorean lan esperientzia izatea eta euskaraz hitzegitea ebaluatuko da.

Bidali zure C.V.a e1@viajesbilbaoexpress.com e-postara edo goizez deitu 943 74 39 12 (Pilar) telefonora.

Jose Angel Zabala

# MAHASTI

Urdaitegi  
eta  
ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

**OKINDEGIA**

17 igandea **DOÑA MERCEDES**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 15 Zabaleta
- 16 Etxeberria (*Errosario*)
- 17 Etxeberria (*Errosario*)
- 18 Ibañez
- 19 Garitaonandia
- 20 Etxeberria (*Errosario*)
- 21 Fernandez
- 22 Yudego

**Escala**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO GEHIAGO:**



Egin klik [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)-en

**15** *barixakua*

**21:30** Gazte Topagunearen aurkezpena  
Gaztetxean.

**17** *domeka*

**18:30** Paradisu Zinema  
“El taxista full” pelikula emango dute Gaztetxean.

**18** *astelehena*

**16:00** Ikastaroa  
KZ gunean interneteko doako ikastaro berria hasiko da. 16 urtetik gorakoentzat. Hilaren 29ra arte iraungo du. Izena emateko: 943 74 88 28

**21** *eguna*

**19:00** Antzerki tailerra  
Taupada Antzerki Taldeak antolatuta, ostegunero izaten da antzerki tailerra. Parte hartzeko interesa dutenek 943743655 telefonora deitu dezakete.

**21:30** Zine Kluba  
Ongarri Zine-Klubak antolatuta, “Persepolis” pelikula ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian.

**24** *domeka*

**12:00** Erakusketa  
Marcial Iranzo elgoibartarraren lanak ikusteko azken eguna izango da. Eguerdiko 14:00ak arte egongo da zabalik Kultur Etxeko erakusketa gela.

**27** *eguztena*

**18:30** Jardunaldiak  
Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak eta Elgoibarko Institutoak antolatuta, gurasoen formaziorako jardunaldiak izango dira. Aurtengoa IX. edizioa da eta adimen emozionalaren garapena landuko dute. Kultur Etxean.



**«Deseo, peligro»**

15, barixakua: 22:15  
16, zapatua: 19:00-22:15  
17, domeka: 19:00-22:15  
18, astelehena: 21:30

**«Alvin y las ardillas»**

17, domeka: 16:30

**“Deseo, peligro”**

Zuzendaria: Ang Lee

Aktoreak: Tony Leung, Tang Wei, Joan Chen

Bigarren Mundu Gerra Shangaira heldu da. Wong Chia Chi unibertsitatera doan neska da. Antzerki taldean sartuko da eta Kuang Yu Min aktorea ezagutuko du. Wong gustura bizi da taula ganean antzezten, baina Kuangek beste proposamen bat egingo dio: bizitzan paper arriskutsu bat antzezteko eskatuko dio. Arazoak eta intriga piztuko dira.




## Gure gomendioa

### Marcial Iranzoren erakusketa

Kultur Etxeko erakusketa gelan otsailaren 24ra arte

Elgoibarko jubilatutako bat da Marcial Iranzo, baina herriko obrei begira egon beharrean, kuadro artean ematen du bere aisialdia. 77 urte ditu eta bizitza osoa lanean pasatu ondoren, bere betiko afizio berri bati ekin zion: jubilatutako ondoren hasi zen margotzen eta, dagoeneko, koadro mordoa ditu. Horiek ikusteko aukera izango da Kultur Etxean, otsailaren 24ra arte. Lan egunetan arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.



«Persepolis» (Z.K.)

21, eguna: 21:30



ENTRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

**PREST**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

# ATE IREKIAK!

**OTSAILAK 21** 18:00 osteguna ARETO NAGUSIAN

**OÑATIKO CAMPUSA:**  
Tel.: 943 71 80 09 // [cgarate@eteo.mondragon.edu](mailto:cgarate@eteo.mondragon.edu)

---

**OTSAILAK 23** 10:00-13:00 larunbata ARETO NAGUSIAN

**IRUNEKO CAMPUSA:**  
Tel.: 943 63 91 29 // [aaflur@bidasoa.eteo.mondragon.edu](mailto:aaflur@bidasoa.eteo.mondragon.edu)

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!**

Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
- > Zuzendari Idazkaritza
- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan 2. zikloko lizentziatura

**WWW.ETEO.MONDRAGON.EDU**



klik - klak

## ion belauستي

**Bukatu esaldi hau: Euskal Herrian gutxi...**

... hitz egiten da euskaraz.

**17 urte dituzu. Politikak motibatzen zaitu?**

Pixka bat, baina ez diot ematen garrantzi handiegirik.

**Zerk kezkatzen zaitu?**

Lanak.

**Zer ikasteko asmoa duzu?**

Urtebete falta zait ikastolako ikasketak amaitzeko eta gero IMHra joango naiz moduluren bat egitera.

**Lanbide Heziketa eginez, dirua ikasteko modua ere badago...**

Bai, ez da ideia txarra.

**Parranda asko egiten dituzu?**

Ez naiz kexatzen.

**Ettxera iristeko ordurik bazuzu?**

Ez, gutxitan.

**Zer moztorro jantzi duzu?**

Ardi moztorrotu ginen, artaldea egin genuen.

**Artzainik bazegoen?**

Bi.

**Askotan gazte asko ez zarete joaten artalde baten moduan esanak betetzera?**

Bai, gehienetan bai, zerbait erabakitzeko orduan. Koadrillan bik erabakitzen badute zerbait egitea, beste guztiak atzetik joaten gara.

**Horietakoa zara?**

Gehienetan bai.

**Elgoibari zer falta zaio?**

Denda batzuk gehienbat, ez dago denda gehiegirik erropa erosteko. Donostia eta Bilbora joaten naiz.

**Modari jarraitzen diozu?**

Pixka bat.

**Aisialdian zer egiten duzu?**

Futbolean ibili. Mintxetan jokatzen dut. Lokalean ere egoten naiz. Txoko bat daukagu, handia da, koadrilarrena. 22 gara.



BARREN astekarirako

**BANATZAILEAK BEHAR DIRA**

16 urtetik gorakoak

BARREN Astekaria ♦ Nafarroa Plaza, 2 ♦ 20870 ELGOIBAR  
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 41 12 ♦ E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**Zure Chevrolet Captivak zoriontsu egingo zaitu.  
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.**



## **CAPTIVA**

Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro dauzkazu egindako erosketara izan dela baieztatzeko. Captiva, ondorengo bertsioak: 5 edo 7 jarleku, ESC, iraultzetik babesteko kontrola, balazta-asistentzia, jaitziera-kontrola, cruise-kontrola, 6 aire-poltsa eta aparkamendu-sentsorea. Bertsioen araberako ekipamendua. Autoarekin gustura ez bazara geratzen, dirua bueltatuko dizugu, eta beste marka bateko autoa erosi nahi baduzu ere bueltatuko dizugu dirua. Chevrolet Captiva, zoriontasunez betea.

### **CAPTIVA**

**Diesel motorrak: 127 ZP eta 150 ZP**

**Gasolina motorrak: 136 ZP eta 230 ZP**

**5 urteko bermea**

**24.600€-tik aurrera**

**GEHIAGO DA.**



**CHEVROLET**

**Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: [clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es) • [www.giauto.es](http://www.giauto.es)**

**Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: [clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es) • [www.giauto.es](http://www.giauto.es)**



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Blena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antollin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldua

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Peio

Herriko Enparantza, 5 behea  
MENDARO  
☎ 943 03 35 35/660 791 723

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
[koldo@movistar.es](mailto:koldo@movistar.es)  
[www.excavacioneslekunberri.com](http://www.excavacioneslekunberri.com)



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Koleora

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 22 58



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94